

KILI-KILI

Eskerrik asko gomita luzatu deuskuzuen erakundeei, Euskal Museoari eta Labayru Fundazioari, herri-erakundeei eta Kili-Kiliren testiguari, gaur egun be, eusten deusazuen guztioi.

Ez dakit egokiena ete nazan gai hau jorratzeko eta zuon aurrean azalpen handirik emoteko gai ete nazan ez dakit, baina... ni be han egon nintzan eta, *Blade Runner* filmeko Roy Batty erreplikantearen antzean, Oriongo konstelazinoko esparruetako borrokak ezagutu nebazan eta C izpiak ikusi Tannhäuser atean.

Hemen esango dodazanak behintzat nik neuk bizitakoak dira eta esaten dodan horrek esaten dodan horren balioa baino ez dauka. Hiru-lau zertzelada baino ez dot emongo, eta nik entzundakoetan eta ikusitakoetan oinarrituko naz bakar-bakarrik.

Gizaseme eta gizalabak etheen antzekoak gara eta ateak daukaguz. Bizitzan zehar batzuk besteen ateak zabaldu, barruan egotalditxo egin, hantxe, sutondoan, edo telebistaren aurrean, edo ipadaren aurrean... eta halako baten etxe horretatik urten eta atea itxi egiten dogu. Batzutan barruan geratu eta ez dogu alde egiten eta betiko geratzen gara bertan. Beste batzutan sartu eta urten ibiltzen gara, lagun horren atea zabaldu eta itxi, behin, zabaldu eta itxi, beranduago, eta abar... Holako sartu-urten batzuen barri emongo deusuet jarraian, konturatuko zarienez. Batzutan ez da argi geratuko *Kili-Kili* egitasmoaren ganean berba egiten nabilen ala nire ganean berba egiten nabilen... Ez da neure burua behar baino gehiago agertu nahi dodalako, baina agirian geratuko danez, gauza batzuk nahastau egingo jataz bidean. Ez gogorregi ni epaitu, holan daukat pentsauta.

Hiru dira landuko doguzan atalak, hiru, eta atal bakotxa berba bakarrean emongo dogu:

- **Begitantzinoa**
- **Serendipia**
- **Habea**

Lehenego berbea: (Kili-)begitantzinoa

Umeak begitantzinoak daukiezala esaten dogu, eta harrituta, zur eta lur, turdiduta geratzen gara askotan ume txiki batek bere zentzuntxoagaz emoten dauzan azalpen eta, erantzunakaz. Horixe izango da ba gaurko lehenengo berbea: *begitantzinoa*.

Kili-Kiliren proiektu hau 1966. urtearen inguruan hasi zala azaldu izan jaku gure Museoko erakusketa honetan be. 1965.ean jaio nintzan ni (aipamen personalakaz hasita nago) eta 6 urtegar sartu nintzan lehenengoz eskolara. *Parvulitos*. Egunero kanpoan formatu, formazinoan jarri, ilaraka, besoa goian... Ikasgelan sartu eta aitagurea errezau. Espainiako himnoa, letra eta guzti, kantau: *Arriba España alzad los brazos hijos del Pueblo Español...* Neguko arrasti baltzetan irakasleak Jesukristoren pasino eta nekaldi latza azaltzen euskun. Testamentu Zaharreko Jaungoiko gogorrek israeldarrak maite eta gorroto ebazan, biak batera. Nork ulertu? Irakurgaiak espiritualak

eta gogoak berotzeko... *Viriato, pastor lusitano... El Generalísimo a caballo... El general Moscardó (que prefirió entregar a su hijo antes de rendir la plaza...), e. a.*

Eta mundu txiki, triste, mutu, ilun, azpiratu eta endekatu horretan bat-batean, zortzi bat urte neukazala, auzoko gazte batzuk hurbildu ziran gure gurasoengana txistu jotzen erakusteko prest eta, horrezaz ganera, euskeraz idazten eta irakurten ikasteko saio batzuk egingo genduzala eta...

Beste umeakaz batera egunero goiz eta arratsalde eskolan egiten genduzan klaseak ezeze, ume talde batek, aukeratuak, aparteko saioak egiten genduzan gazteen lokaletan. Koaderno xeble batzuk banandu euskuezan. Zenbaki handia euken azalean eta hurrenez hurren bete behar ziran. Gazteokaz batera zer egin behar zan ikusten genduan, euren laguntasuna eta laztanak jasoten genduzan eta gero, etxera joan eta han, eskolako etxekolan normalez ganera, gure neska eta mutiko taldeokaz aparteko etxekolanak, "anormalak" esango dogu, egin behar izaten genduzan.

Lan ta lan koadernoak ziran jaso genduzanak.

Koadernoak zabaldu eta... haxe poza hartu nebana! Ni neu ez nintzan ondino euskeraz ezertxo irakurteko gai ia, baina hango orrietan agertzen zan mutikotxo txapeldunaren kolore biziak ikusi, zertan ebulan ikusi, beti pozik, olgetan, eta eskolan... baina okerkeritxoak eta barre egiteko aukerak eten barik.

Eskolea Kili-Kilik gidatzen eban trena zan, bagoirik bagoi agertzen ziran mahaiak, arbelak, liburuak... kakalekua bera be! *Kakalekua!* Sekula be idatzita ikusi bako hitza! Ene Jesus! Haxe zan poza!

Jesukristo jantzi zuri-zuriez agertzen zan, lasai, bakean, pozik... beste apostoluakaz batera, bere lagunakaz, jan-edanean, umeak inguratuta askotan.

Euskaldun batek adarra jotzen eban Orreagako gudaldian euskaldunak irabazleak zirala iragarteko, eta mutiko batek hatx punta baten ganetik txiza egiten eutsen behean egozan Karlomagno errege handiaren tropei. Bermeoko portuko ontziak koloreztatu behar izan genduzan. Hainbat kontu, leienda, kantu... ikasi genduan.

Eta aitaren baten gai izan ginan, hasieran neke handiz eta kontu handiz baina azkenean maisutasun handiz be, ia-ia konturatu barik, euskeraz adierazo gura genduana idazteko eta euskeraz idatzita ikusten genduzan idatziak irakurteko.

Ahoa, belarria, begia... txapela eta telefonoa. Era horretara azaltzen euskun Kili-Kilik berak zelan erakusten euskun euskeraz...

Prozesua gardena zan, transparentea. Kili-Kilik zeozer irakasten euskunean zer eta zelan ikasi esaten euskun. Pozik egoanean esan egiten euskun. Baten bat maite baeban esan egiten euskun. Triste baegoan esan egiten euskun... Eskolako liburuetan ez neukan nik hain zuzen eta garbi eta niri eta nire lagunei *berba egiten* euskunik. Pedagogiaren eta hizkuntzaren pedagogiaren aldetik zabal aztertze gaia izan daiteke horixe.

Kili-Kiliren ganean berba egiten gagoz baina pertsonak ondino ez doguz aitatu be egin. Aitatu behar dogu Jose Antonio Retolaza, aita. Aitatu behar dogu baita Lander Gallastegi, aita, hau be.

Kili-Kiliren lehenengo aita hori, Jose Antonio, zer zan? Erdi abade eta Kili-Kiliren erdi aita.... Ze (hauxe nire zortzi edo bederatzi urteko buruan ez jatan oso ondo garbi lotu...) aita ez zan, osabea ei zan, eta abade zan, baina nik, neure ume begiakaz eta begitantzinoakaz, ikusten neban Kili-Kili Jose Antonioren eskutik edo ondoan eta pentsetan neban osabea baino gehiago izango zala, seguru, baina zelan izan zeitekean...?

Beranduago ikasi nebanez, ondino gehiago konplikatatu zan kontua ze Jose Antoniok San Antonen topau ei eban Kili-Kili, baina gero Arrate inguruan be agertu ei zan beste Kili-Kili bat... eta Araban... eta Nafarroan... eta Iparraldean be beste bat... *Bost pertsona eta Kili-Kili bakarra*, danak batera? Aldi haretan ikasi neban dotrinea ekarten deust gogora honek.

Eta zer dakigu Kili-Kiliren jaiotzaz? Nor zan ama? Nogandik sortu zan mundura?... Bide labanetan sartuko nazalakoan nago eta egin daidan aurrera...

Egia da, baina, aldikada baten euki neban ardurea hau zala, baina, kontu honeek, zelanbait, ahaztu eta beste batzuei erreparatuta, denporeagaz Kili-Kiliren inguruko iruditeria aberastu egiten jatala uste dot.

Jose Antonio Retolaza aitatu dogu eta aitatu daigun ointxe Lander Gallastegi. Hau be osabea edo aita edo... ez dakit nik zer. Niretzako Kili-Kiliren hierofania honetan, eta Jose Antonioren lanari ezer kendu barik, ezinbestekoa. Gorria eta berdea. Zuria eta baltza. Marroia. Gorria + berdea = marroia. Maisu baten irakatsia kolore biren batuketan. Abiapuntua... sinplea. "Minimalista", gaurko esnob batek esango leukenez. Plastika eta artea. Abentura estetikoa...

Batek, Jose Antoniok, edukinak, printzipioak, arauak, programak, berbak... ipiniko ebazan. Besteak sensibildadea, berbaz azaldu ezin leiteken edertasuna, askatasuna, infinitoa... Honeexek eta gehiago jartzen euskuzan Landerrek 7-8-9 urteko neska-mutikoei, eskuen artean.

Lan ta lan koadernoetan Kili-Kilik mundua umeen ikuskeraz azaltzen euskun umei, eta ume izanda be gure mundua txiki, triste, mutu, ilun, azpiratu eta endekatua zala konturatzen ginan baina, Kili-Kiligaz azpikeriak ikasi behar genduzala be ikasi genduanez, bagenkian bazala beste mundu bat, ez agerikoa, egunero eta orduro ezin adierazotekoa, ixilpekoa ia, sekretua, sekretu handia... baina mundu hori handia, luzea, zabala, alaia, argia eta kolorez betea zan.

Kili-Kili lan ta lan koadernoetako lehenengo begitantzinoak neska-mutikotxoaren mundu soila, ederra eta pozgarria asetzen eban. Baina, modu berean be, amesakaz, asmoakaz, askatasunagaz... bat ez etorran errealdadearen aurrean mesfidantzazko bigarren begitantzinoaren bidea erakutsi euskun. Konturatu barik be, gizarte bateko eta egoera politiko eta ekonomiko bateko kide eta zordun sentidu ginan.

Lan ta lan koadernoak bete ahala, susmo bat zabaldu zan gure artean. Bagenkian urteerak eta txangoak egiten zirala, baina derrigorrez ondo bete behar ziran koadernoak, oso-osorik? Eta zenbat bete behar ete ziran? Bategaz nahikoa ete zan? Bi? Hiru behar ete ziran?...

Gure irakasle gazte-gazteen eginak eta ekinak zabalduz joan ziran gure Kili-Kiliko taldean. Txistua jotzen urten, Santa Ageda kantuak kantatu, Olentzero lehenengoz atara Bilboko zazpi kaletan... euskal kantari barrien kantuak... antzerkiak...

Bigarren begitantzino horren bidean, gure gurasoak eta familiakoak be baegozan. Ez daukat ahaztuteko amamarenera igoten neban arratsalde batzutan, Kili-Kiliko *lan ta lan* koadernoak betetan ibiltzen nintzanean, zelako errespetuz ikusten eban gure aitak bere aurrean egiten nebazan gauzak. Irakurgaiak leiduteko eskatzen eustan eta poz-pozik egoala igarten neban nik neure letra makurrakaz testuak kopietan nebazan bitartean. Bera harro egoala igarten neban nik. Ni be, orduan, harro...

Bigarren berbea: (Kili-)Serendipia

Hasiera baten “abagunea” hitza euki dot jarrita bigarren berbatzat baina asko poztu naz Labayruren hiztegian *serendipia* hitza jasota dagoala ikusi dodanean, hauxe dalako benetan behar dodan berbea. *Hiztegi batuan, Elhuyarren* eta *5000n* ez dator, baina Labayruko hiztegian bai. Espainiako RAEk igaz, 2015. urtean, argitaratu eban bedeinkazino guztiakaz sarrera hau.

Serendipia ingelesez erabilten da: *serendipity*. Hortik ei dator *serendip* hitza be eta ekialdeko alegietan agertzen dan *The Three Princess of Serendip* kontakizuna.

Kontu hau sano polita da baina beste hitzaldi baterako gaia izan daiteke. Dana dala ipuin honen arabera mundu honetan kasualidadez jazoten dira gauza asko, eta ezustean batzen diranean gauza bata eta bestea, harrigarriak suertau leitekez.

Serendipiaren bide honetan nik neuk lehenengo eta behin izenburua bera aitatuko neuke. Jose Antonio Retolazak kontetan ebanez, Kili-Kili izena Mediterraneoan zehar lagun batzukaz egin eban bidaian hasi jakon buruan egosten. Istambulen egoala, Konstantinoplan edo Bizantzion, emakume talde bat ikusi eban lanean, portuan, sare artean. Kantuz eta barrez ibili ziran androk “kili-kili-kili-kili-kili...” esanaz euren hizkuntzan. Harrituta geratu zan gure euskalduna euskerazko berbok hain doinu eta giro alaian eta euskerea ez zan beste hizkuntza baten entzutean. San Antongo katekesiko lehen orrietan sortubarri eban pertsonaiari izena emoteko ordua heldu zanean, bateatu behar izan ebanean, Istambuleko portuko andren algarak belarrietan barritu egin jakozan Jose Antoniori, antza.

Serendipiaren bidearen bigarren geltokia, geltoki nagusia, Jose Antonio Retolaza eta Lander Gallastegi alkartu ziran eguna dala esango neuke. Ni neu bertan ez nengoanez eta nire begiz ikusi ez neban ezin gauza handirik esan.

Jose Antonio Retolaza zanari zuzenean entzunda daukotsat serendiapiaren ibilbide honen beste pasarte bat, hirugarrena ondo baderitxazue. 1970eko hamarkada amaitzen egoala, 1978. urtearen bueltan, autonomiak erakundeak eta eskuduntzak ekarri ebazanean, ikastolen sarea finkatuz eta euskal eskola publikoaren sarea eratuz joian neurrian, Kili-Kilik itxura barria hartu behar izan eban. Argi eukan Jose Antoniok tebeoaren edo komikiaren formatoa zala egokiena, Kili-Kiliren betiko filosofiaren barruan lana eta irribarrea buztartuz. Espainian komikiaren industria Bartzelonan eta, batez be, *Bruguera* etxe handiaren inguruan eregita egoan garai horretan. Gorabehera askoren ostean, eta ate-joka luzaro ibili eta gero, serendiapiaren esku itxi eben Jose Antoniok eta haren andreak, Kili-Kiliren proiekturaren etorkizuna. Alkarregaz Bruguerara joan zuzenean, nogaz egon behar zan itandu eta González abizeneko bategaz egon beharko ebela esan eutsien. González jaunaren igon, zertarako joiazan esan eta harek... *Creaciones Editoriales*, Brugueraren bigarren markapean argitaraturiko *Mortadelo y Filemón* ospetsuen fotolitoen moltso handi bat atzamarragaz erakutsi eta beharrezko ebezan guztiak hareen esku itxi ebazan...

Katalunian katalanez argitaratzen eben beste erakunde batzuen bitartez Frantziako Dargaud argitaletxe ospetsuaren hainbat pertsonaia lortu ebezan (*Asterix et Obelix*, *Robin Dubois*, e. a.).

Serendiapiaren hurrengo geltokia, aitatuko dogun azkenengoa... Komiki euskarri barri honen aurkezpen eguna be izango zan lehenengo *Kili-Eguna*. Ez gengoan ohituta euskaldunok euskaldun moduan kalean batera agertu eta ugari agertzen, ganera. Garai horretakoak edo beharbada berandutxuagokoak dira (eta hori izango zan orduko ospakizun honen antolakuntzan arazoetako bat) lehenengo ikastolen Jaiak eta AEK-k antolatuko eban *Korrika*. San Antongo eleizan hasi zan egun horretako jarduna, jendetza ikaragarria batu zan erdera hutsez beteta ikusten ohituta gengoan Bilboko kale nagusietan: Arenalean, Gran Vian, Jesusen Bihotzaren plazan, San Mames inguruan...

Nik neureari ekingo deusat oin, eta parkatu... Hasieran aitatutako eskola itxita neukan nik eta ikastetxe barrian matematikako irakasle gazte eragilea ekin eta ekin euki genduan egun horretan Bilbora joan behar genduala-ta. Bilboko Azoka zaharrera ganera... Joan ginan ba, eta lehenengoz jarri jatan begien aurrean, 12-13 urteko mutikoa nintzala, euskaldunok talde moduan euki geinken handitasuna eta indarra. Azokabete lagun bertan. Lurralde guztietatik, leku handi eta txikietatik etorritako ume eta gurasoak gengoan han, batzuk jokoan, beste batzuk lehiaketetan parte hartzen, beste batzuk idazten... Nik neuk ez neban saririk jaso orduko egunean baina ikastetxera bueltau nintzanean matematikako irakaslea literatura lehiaketara aurkeztu nintzala konturatu eta... inoz egin deusten saririk ederrenetakoa opatu eustan: Mikel Zaratek bere eskuz sinatutako liburu bat. Beldurtuta eta lotsatuta joan nintzan ikastetxeko irakasleen jantokira. Matematikako irakasleak Mikel Zarate zana aurkeztu eustan. Mikelek izena itandu eta dedikatoria egin eustan. Buruz dakit: "Zuri / Asier Astigarragari / nire ametsa / nire itxaropena...". Seguru nago Mikel koitaduak jende guztiari bardintsu egingo eutsazala dedikatoriak, baina egun horretan mundu honetako, unibertso honetako mutikorik zoriontsuena nintzala sentidu neban.

Handik lasterrera Mikel Zarate gure artetik joan zan eta horren barri emon eta omenalditxoia egiteko mahai honetan daukagun Eguzkik zuzentzen eban Kili-Irratira joan ginan gure ikastetxeko mutil talde bat.

Hirugarren eta azkenengo berbea: (Kili-)Habea

Habea gure etxe eta baserrien euskarri nagusia da. Honegaz batera, ebanjelioetan, Jesus untzez josi eben gurutzea be bada. Adiera batzutan *habea* hitza “joera” bat edo “grina” adierazteko erabili leiteke. “Zoritxarra” be izan daiteke euskeraz...

Amaitu daidan nire bizitzako pasarteokaz. Parkatu aspergarriegiak izan badira. Azkenekoz atea zabaldu eta itxi egin nebanean Kili-Kiliren munduan 1983 eta 1984 urteetan izan zan. Gure ikastetxeko matematikako irakasle eragileak ardura batzuk hartu ebazan herri-erakunde baten eta Kili-Kiliren egitasmoaren inguruan ekintza barriak sustatu gura izan ebazan. Bere deia jaso neban ardura, beste batzukaz batera, eta ahalegin txiki bat egin genduan orduantxe udaleku giroko antolaketa bategaz. Orduantxe ezagutu neban Kili-Kiliren osabea, edo aita, edo zana zalakoa... Eta bere inguruan ebilen jentea be. Bilboko bulegoan ebilzan Pili Zuazo, etxe haretan andra-zentzuna jartzen eban bakarra, eta Iñaki Egurrola, Kili-Kiliko Hermes (jainko mitologiko mezulariaren pare, ondino batera eta bestera geratu barik dabilena)... eta beste hainbat.

Aldikada batean ia astero alkartzen ginan, eguenero, eta berandura arte geratzen ginan batzutan zer edo ha prestetan. Estudiante nintzanez, baina tunante ez, Jose Antoniok txofer lanak egiten ebazan nigaz eta etxeraino ekarten ninduan. Ordu asko egiten genduan alkarregaz eta batzutan berbaz baina askotan berba barik gauza asko aitzen emon eustazan. Hainbat kontu ikasi neban beragaz orduan.

Habe asko aitatu leiteke Jose Antonio Retolazaren, eta beharbada Kili-Kiliren beraren, etxearen egituran, baina hiru baino ez dodaz azalduko hemen. Habeen egitura honen barri emoteko kanpotik hasi eta barruraino joango naz. Bide malkarra izango da, beharbada, baina jakizue errespetu osoz eta bihotzez esango dodazala hurrengo berbok.

Lehenengo habe, kanpoko, **arteza** da, artezean dator etorri behar dauan lekura. Jose Antonio Retolazak, eta Kili-Kilik, beti eutsi izan deusie esanari eta esateko erari. Denporeagaz, gehiago edo gitxiago, batekoak edo besteakoak izan, gure inguruko euskaldun guztiok, danok jakin dogu edo danok ikasi dogu gure diskurtsua gozotuten, egokituten, moldatzen... edo aldatzen. Hemeroteketara jo ezkeru pertsona batzuren eta batez be proiektino soziala edo politikoa euki daben pertsonen lehengo eta oraingo diskurtsuak hartuko bagenduz beti igarriko geunkez gizartearen aldaketagaz batera eta urteen porasuz aldatu diran esateko moduak, berbak, jarrerak. Jose Antonio ez zan eskola horretakoa eta beti eutsi izan eutsan esandako gauzei eta gauzei esateko moduari. Baina gizartea pitinka-pitinka mobiduz joan zan bere inguruan...

Bigarren habe, barrurago, **gizatiarra** da, gizon-emakumeen barruko hartuemonak beharrianak asetu nahi dauana. 1936.eko gerra zibilak eta haren ostetxoan aita hiltzeak edo anaia nagusia

arazo politikoak zirala eta etxe girotik aldendua izateak goitik behera markau eban berak mundua ikusteko eukan modua. Ez dot oraindik inor ezagutzen bere familiarik, baina ondo dakit Bilboko bulegoak itxi ostean zelako poza hartzen eban uri honek gogora ekarten eutsazan arazoetatik aldenduta, zelako bakea hartzen eban. **Adiskidetasuna** be aitatu beharko geunke hemen. Kili-Kilik Jose Antonioren azken urteetan izan eban erasorik gogorrena Jose Antoniok lagun moduan, betiko moduan artez eta zabal, lagunari, artekoari, hurkoari zuzendutako mezuan oinarritu zan.

Hirugarren habea, luzeena eta sendoena, etxearen gunean dagoana, **zerutiarra** da. Eta hauxe da nire ustez Jose Antonioren barru-barrukoena. Bera kristinaua zan eta abade egin zan. Hortik aurrera beste guztia berez-berez etorri zan. Euskaldunak jasaten eben injustiziaz jabetu eta horren aurrean hartu eban konpromiso sendoa eta bizitza osokoa. Eleizaren erakundearen ganetik kristinaua izaten jarraitzeko hartu eban bidea, printzipio nagusiei uko egin barik. Jose Antonioren abadetasuna ukatu egin eutsien baina, nire ustez, berak ez eutsan inoz be itxi abade izateari. Eta bere familiarik gure artean badago ondo hartu deidala oraintxe bertan esan dodana. Gogoan daukadaz sarri azaltzen ebazan ardurak eta kezkek. Behin entzunda daukatsat berari... “Gauza bakarra dago ulertzen ez dodana eta Jainkoaren aurrean altxau eta sumindu egiten nauana: Zu bazara, izan, nondik eta nora izan leike ume bakar batek sufridutea?”.

Ba nik neuk ez daukat erantzuna. Jose Antonioren atea itxi neban hako haretan eta ez neban izan barriro zabalduko aukerarik edo modurik izan. Halako gazi-gozo bat sentidu neban hil zan egunean eta damututa nago gauza askogaz, beragaz batera ez egindakoakaz batez be... baina ez daigun ilun amaitu hitzaldia.

Bete daigun gure bizitza Kili-Kiliren gorri-berde-marroiez. Egin deiogun kinu Kili-Kiliri, berak guri ahal eban guztietan kinu egiten euskun lez.

Eskerrik asko!

Asier Astigarraga
Euskal Museoa
Bilbo, 2016-04-21